

LIBURUAK

Izenburuak: ‘Surikata taldea eta zenbakiak’ eta ‘Surikata taldea eta aurkakoak’.

Testua eta marrazkiak: Stephen Gulbis.

Itzulpena: Leire Calle. **Orrialde kopurua:** 12 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Ibaizabal.



LIBURUA

‘Tximeletak’

Mundu osoan milaka eta milaka tximeleta bizi dira; txikiak dira batzuk, baina oso handiak dira beste batzuk. Guztiek dituzte bi begi, bi antena, sei hanka eta lau hego. Insekto bitxi hauen bizimoduari buruzko xehetasunak kontatzen dira liburu txiki eta koloretsu honetan: zein tamaina duten, non bizi diren, zer jaten duten, nola egiten duten hegán, nola ikusten duten, nola usaintzen duten... Amaieran, tximeleta nola sortzen den ere kontatzen da.

Kate Davies
Jane Costa

Argitaletxea: **Tarttalo**



KOMIKI LIBURUA

‘Buruzagien borroka’

Prorromanix buruzagiak buruzagien borrokan parte hartze-
ra gonbidatu du Abraracurci-
xi. Lehian galtzaile irteten den
buruzagiaren eskualdeko
buru bihurtuko da borrokako
garailea. Panoramix aztiak is-
tripu txiki bat izan du: menhir
batekin buruan jo dio Obeli-
xek, eta oroimena galdu du.
Ondorioz, ezin du edabe ma-
gikoa prestatu. Abraracurci-
xek, beraz, edaberik hartu
gabe borrokatu beharko du.

Rene Goscinny
Albert Uderzo

Argitaletxea: **Bruño**

Eukene Herrera

IBAIZABAL ARGITALETXEKO LITERATURA SAILEKO ARDURADUNA

«Ezustekoz beteriko liburuak dira»

Animalia biziak eta jostariak dira surikatak; haur txiki-
txoak bezala. Badute, ber-
raz, elkarren artean antze-
kotasunik. Animalia jostari
horien bidez, zenbakiak
eta aurkakoak ikasiko dituzte ira-
kurle gaztetxoek bilduma honeta-
ko liburuekin, baina, bereziki, ira-
kurtzea jolastea dela ikasiko dute.

Pertsonaia oso bereziak dira bildumakoak, ezta?

Beste behin, animalia bat aukeratu
dugu haurrengana hurbiltzeko: su-
rikata. 40 zentimetro inguruko ani-
malia txiki hauek Afrikan bizi dira,
eta oso jostariak dira. Haur txikiek
dituzten ezaugarriak dituzte ani-
maliatxo horiek ere: txikiak, biziak,
alaiak, bizkorak eta jostalariak
dira. Adin horretako haurrek ere jo-
lasteko gogo izugarria, jakin-min
handia eta gauza berriak ikusteko
eta ikasteko joera izan ohi dute.

Zein da liburuen helburua?

Bilduma honekin hainbat
gauza landuko dituzte: ira-
kurketa, surikaten bizimo-
dua, zenbakiak eta aurka-
koak... Bilduma bada ikas-
teko modu bat, baina,
nagusiki, haurrak liburueta-
ra hurbiltzea eta liburuak jo-
las modura hartzea da
asmo nagusia. Azken bate-
an, liburuak jolas egiteko
modu bat direla ikustea nahi
dugu. Ondoren, ikasi egingo
dute, eta euren jakin-mina

aseko dute. Izan ere, orrialde guz-
tietan izango dute nondik tira egin
eta zer ikusi.

Jolasteko hainbat elementu dituzte irakurleek.

Bai, orrialde guztietan azal hega-
lak, irtenguneak, tira egiteko eta
mugitzeko elementuak daude.
Guztietan daude ukitzeko, mugit-
zeko eta altxatzeko elementuak.
Orrialde guztietan ezusteko ugari
daude, eta horixe da, hain zuzen,
haurrei gustatzen zaiena: hemen-
dik edo handik tira eginda zer ger-
tatuko den ikustea. Bi liburuek
amaiera berezia dute: sorpresa
handi bat. Ezustekoz beteriko liburu-
ak dira, beraz.

Liburuak ikusgarriak dira?



Bai, oso liburu koloretsuak dira.
Marrazki alaiak eta koloretsuak di-
tuzte, eta pertsonaiak ere oso sin-
patikoak eta atseginak dira, umo-
retsuak. Azken batean, liburu
alaiak eta erakargarriak dira. Ho-
rrez gain, letra mota eta tamaine-
kin ere jolas egiten da. Hala, hitz
edo zenbakiren bat nabarmendu
nahi izan denean, esaterako, ta-
mainaz handitu da. Hala, liburuko
hainbat hitz eta zenbakirekin jolas
egin du egileak. Beraz, liburu txi-
kiak izan arren, elementu, gauza
eta ezusteko ugari dituzte jolaste-
ko eta ikasteko.

Jarraipena izango du bildumak?

Oraindik ez dakigu, baina bi liburu
hauek egiten duten ibilbidea ikusi
ostean erabakiko da. Ea haurrek
eta gurasoek gustura hartzen du-
ten bilduma. Hala bada, jarraipena
izango du.